

Oñati

OÑATI / Egubakoitza / 2005eko irailaren 23a / 20. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Oihana Elortza • Barrenkalea 33 BERGARA 20570 • Tel.: 943 25 05 02 • Faxa: 943 25 05 13 • Posta elektronikoa: oinati@goiena.com • Lege gordailua: SS482/05

Athleticek badu bere lagunartea Oñatin: OZT

OIHANA ELORTZA

Antton tabernan du egoitza Oñatiko Zurigorri Taldeak. Dagoeneko 30 kide inguru dira eta herriko zale guztiak gonbidatu nahi dituzte bazkide egitera. Atzo, eguna, egin zuten lagunartearen aurkezpen ofiziala eta dituzten asmoak azaldu zituzten kideek.

Oñatiko Zurigorri Taldea izenarekin eman du alta Oñatiko Athleticen lagunarteari Athletic klubean. 30 lagun inguru dira dagoeneko, baina Oñatin "Athletic-zale asko" daudela diote, eta guztiak gonbidatu nahi dituzte lagunarteko bazkide egitera.

Antton tabernan du egoitza lagunarte horrek eta karguak aukeratuta dituzte dagoeneko: Jexux Arregi da presidentea, Jorge Palacios presidente-ordea, David Blazquez diruzaina eta Eneko Blanco idazkaria.

ZOKKETAK ETA BIDAIK

Oñatiko Zurigorri Taldeak abonu bat hartu du eta San Mameserako bi sarrera zozketatuko ditu bazkideen artean Athleticcek etxean jokatzeko duenean. Bilbo-



Oñatiko Zurigorri Taldeko kide batzuk Antton tabernan.

ra bidaia egiteko asmoa ere badute, eta Gabonetako loteria aterako dute laster.

Inguruko herrietan ere badaude Athleticceko lagunartek, eta

Bergarakoak, adibidez, asko lagundu ei die.

Eurekin harremanetan jartzeko, Antton tabernara joan edo idatzi hona: ozt2005@hotmail.com.

GAZTELEKU ETA GAZTETXE AUZIA

Ezker Abertzaleari erantzun dio Udalak

O.E.

Gaztelekua eta Gaztetxea "paraleloak" direla esan zuen Ezker Abertzaleak, eta EAJren jarrera salatu zuen. Udal Gobernu Batzordeak gazteek ez dutela inoren kontrola onartzen esan eta gazte batzordean parte hartzeko eskatu dio Ezker Abertzaleari.

Joan den astean, Ezker Abertzaleak prentsurrekoa egin zuen, gazteriaren inguruan Oñatin sortu diren azken gertakizunen inguruko iritzia emateko. Ezker Abertzaleak esan zuen Gaztelekua zein Gaztetxea zilegiak direla Oñatin, "baldin eta norberarekin askatasuna zein elkarbizitzarako oinarriko arauak errespetatzen

diren". Gaztetxea okupatu zutenetik gazteria "EAJren mehetxu-pean" bizi dela ere esan zuen Udal Gobernu Batzordeak. Erantzpen horiei erantzun die gazteek "zuen kontrola erabazteko dutela onartuko esanaz.

GAZTE BATZORDEA

Udal Gobernu Batzordeari "bizi eta esanguratsua" iruditzen zaien Ezker Abertzaleak "Gazte Batzordearen bileretara huts egitea" eta "benetan akordioaren bila" eta gazteen alde "badaude, ekarpenak han egiteko esan dio Udalak.

Bestalde, Gobernu Batzordeak gogoratu nahi dio Ezker Abertzaleari, beti jaso duela erantzun babesa "Gaztelekua Oñatiko gazteriarendako azpiegitura izan zedin", eta "orain arte bat etorri" direla Gaztelekua irekitze eta ixte ordutegiarekin eta adinaren eta kontsumoari mugak jarzazko orduan. Bestetik, "Gaztelekua gertatzen ari diren arau-hausturen erantzule" ez egiteko eskatu dio Udal Gobernu Batzordeari Ezker Abertzaleari, eta esan dio berak ere jakin badakien Gazte Asanbladako kideekin "hitz egiten" ari dela Udalak.

Gazte Asanbladako kideekin hitz egiten ari dela gogoratu dio Udalak Ezker Abertzaleari

LABUR

'Nik be badakit... ingu?' leloak irabazi du Laixanek antolatutako pegatina lehiaketa

Nik be badakit... ingu? leloak irabazi du Laixanek antolatutako pegatina lehiaketa. Arrasateko Julen Mendizabalena da. Atzeko kaleko jaietarako etorri zen Julen Oñatira, eta tabernetan kaxak ikusi eta lehiaketan parte hartzea erabaki zuen. Lelo bat baino gehiago bota zituen gainera. 60 euro irabazi ditu Julenek, eta Laixani eman dizkio. Laixanek 4.000 pegatina inguru aterako ditu jaietarako lelo horretarako.

Eskularen ikastaroetan egindako lanen erakusketa 28a arte dago zabalik

Herritarrek eskularen ikastaroetan egindako lanen erakusketa zabaldu dute kultura etxean. Pintura ikastaroan egindako lanak, goak, hari eta orratzekin egindako toailak eta gortinak eta zerkamika eta zaharberritze ikastaroan egindako altzariak daude erakusketan, adibidez. Eguaztena bitartean egongo da zabalik erakusketa, 18:30etik 20:30era. Udalak antolatzen ditu ikastaro horiek, eta Bidebarrietako lokalean egiten dituzte urtean zehar.

SAN MIGEL ETA ERROSAIXO JAIK

Bost egun bakarrik falta dira txantxikua jaitsi eta jaiak hasteko

OIHANA ELORTZA

Datorren eguaztenean jaitisiko da txantxikua San Migel parrokiatik txosna-gunera, 20:00etan, eta orduantxe hasiko dira aurtengo San Migel eta Errosaixo jaiak.

DANBORRADA ETA MOZORROA

Aurreko urteotan bezala hasi eta bukatuko dira aurtengo jaiak ere: San Migel bezperan danborrada egongo da eta Errosaixo biharan eguna koadrilen eguna izango da, mozorro eguna. Bitartean,

musika, umeendako jolasak, kirola, sokamuturra, motor erakusketa, barrakak, paella, herri eguna eta gehiago dago.

TXAKURRAK ETA EUSKAL ARRAZAK

Hala ere, irail osoan dago jai giroa Oñatin. Atzeko kaleko jaiak, Haurren Eguna eta asteburu honetan bertan egingo duten Nazioarteko Artzain Txakur Txapelketa. Domekan, etzi, egingo dute eta 46. aldia izango da. Asteburu honetan, gainera, Artzainen Munduko III. Topa-

ketak jarraipena izango du Arantzazun. Zapatuan, bihar, Euskal Herriko Arrazen X. Erakusketa egingo dute Unibertsitate parean eta gai horren inguruko jardunaldiak egingo dituzte astelehena bitartean. Nazioarteko adituak etorriko dira hitz egitera.

AURREKONTUA

Aurtengo jaien aurrekontua 126.304 euro da. Kontratazioetan, herriko hainbat taldetan eta azpiegituran erabiliko dute diru kopuru hori.

Etixerako ederrena, Zanguitun



deco-tex ZANGUITU alfonbrak

Herri lagunak 4 BERGARA • Tel.: 943 76 08 69

- Alfonbrak
- Alfonbrak neurritara
- Funda nordikoak
- Edredoiak
- Kortinak
- Toailak
- Izarak

ZANGUITU margoak

Irala z/g BERGARA • Tel.: 943 76 19 54

IRU margoak

Araba etorbidea 3 ARRASATE • Tel.: 943 79 11 71

- Parket flotatzailea*
- Sintasola*
- Mocketak*
- Paper pintatuak

* Salmenta eta etxean ipintzea.



Orain daukazu aukera zure Lanbide Heziketako ikasketak hasteko edota bukatzeko, zure beharretara moldatzen den ondoko doaineko eskaintzarekin... BERGARAN !!!

ESKAITZA PARTZIALA- ERDI ETA GOI MAILAKO ZIKLOAK

GOI MAILAKO ZIKLOAK	LANBIDE MODULOAK
<ul style="list-style-type: none"> • Mekanizazio bidezko produkzioa 	<ul style="list-style-type: none"> • Mekanizazio, konformazio eta muntaia prozesuaren definizioa
ERDI MAILAKO ZIKLOAK	LANBIDE MODULOAK
<ul style="list-style-type: none"> • Mekanizazioa • Ekipo eta instalazio elektroteknikoak 	<ul style="list-style-type: none"> • Txirbil-harroketa bidezko fabrikazioa • Mekanizatutako produktuaren ezaugarrien kontrola • Lanerako prestakuntza eta orientabidea • Hizkuntza teknikoa • Automatismoak eta koardro elektrikoak • Etxebizitzetako eta eraikinetako instalazio bereziak
<p>ZUZENDUA:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Pertsona helduei zuzendua, Berriazko Lanbide Heziketa era malguan ikasteko aukera eskainiz, ikaskuntza beraien beharretara egokituz. <p>BALDINTZAK:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Beharrezkoa den titulua izatea(DBH, LH1) E.M zikloentzat eta (batxilergoa, FP2) G.Mkoentzat. • 21 urtetik gorako pertsonentzat edota gutxienez bi urteko lan esperientzia egiaztatuta dutenentzat. 	

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETAN SARTZEKO IKASTAROAK

- ZUZENDUA:**
- Heziketa zikloak egiteko sarrera baldintzarik ez, eta lanbide heziketa ikasi dutenentzat.

IZENA EMATEA: Irailaren 25era arte. **ORDUTEGIA:** : Arratsaldez, ikasleekin adosturik.

Ibargarai 1 • 20.570 BERGARA • Tel.: 943 76 24 91/ 943 76 38 40
Faxa: 943 76 38 41 • E-posta: imaltuna@sarenet.es • www.imaltuna.com



Opel. Ideia berriak. Auto hobekak.

Opel Zafira berria

Malgutasuna ez da inoiz horren dibertigarria izan



Euro NCAP "5 izar" gogoneko kalifikazioa. Bertsoa mugatzen babesean.

Opel Zafira berria heldu da diseinu ikusgarriarekin.

Kirol-automobila, kristalezko sabai zoragarriarekin. Flex7 sistemarekin, zazpi jarleku dituen, zuk nahi dituzun konbinazio guztiak egiteko. Zafira berriak, gainera, puntako teknologia dauka ondorengo motorretan: CDTI 150 ZPraino eta ECOTEC gasolinazko motorretan 240 ZPraino. SAFETEC segurtasun sistemari esker, errepidean lasai ibil zaitezke. Segurtasun sistemak ondorengoak ditu barne: EDS xasisa eta egokitutako AFL faroak.

Opel Zafira berria. Malgutasunaz disfrutatzeke.

www.nuevozafira.com.es

Zafira gama: Kontsumo mistoa (l/100km) 6,1etik 9,5era. Emisioa: CO2 (gr/km) 165etik 228ra.

Giauto

Olaso 25. Elgoibar
Otaola etorbidea 29. Eibar
Olabarrena auzoa z/g. Bergara
San Andres auzoa 10D. Arrasate
Yurre auzoa, Karobi Pol. Z/g. Olaberria
Bentalde pol. 3. Anoeta-Tolosa

GMAC FINANCIAL SERVICES

Oñati

GOIENKARIA • GEHIGARRI BEREZIA

2005eko irailaren 23a • SAN MIGELAK 2005



SANMIGELAK 05

JATORRIZKO ARGAZKIA: GOIENKARIA



*Eraman dotoretasuna
zure etxera*



gelatzo s.l.

Zubillaga auzoa 1
OÑATI
Tel.: 943 71 63 22
Faxa: 943 78 15 51



Kultura Sailak
jai zoriontsuak opa dizkizue




OÑATIKO UDALA

ATREBENTZIAEZPADA/ Zer da Oñatiko jaietatik gehien gustatzen zaizuna?



GORKA UGARTE
9 urte



MARTIN IRIGOIEN
8 urte



OIER PUGA
9 urte



PAULA UGARTE
5 urte



JOSUNE PUGA
5 urte



UXUE ZUBIAGIRRE
5 urte

Txorimaloak ditut gustuko jaietan, eta batez ere euren aurrean korrika ibiltzea. Herri Eguna ere gustatzen zait; egun horretan animaliak ikustera joaten naiz azokara.

Barrakak ditut gogokoen jaietan, eta gehien ohe elastikoak gustatzen zaizkit. Suzko erruberak ere gustatzen zaizkit, eta ikusteko ohi baino beranduagora arte gelditzen naiz kalean.

Txorimaloak gustatzen zaizkit, eta barraketan ibiltzea. Nagusitan txorimalo janztea gustatuko litzaidake; niretzat txorimalorik gogokoa zezena da; barraketan, berriz, matxinsaltoa.

Barraketan ibiltzea gustatzen zait, baina egunero ez naiz joaten. Barraketako zaldietan ibiltzen naiz gusturen. Txorimaloak ez ditut gustuko, beldur pixka bat ematen didate.

Barrakak asko gustatzen zaizkit, batik bat ohe elastikoetan saltoka ibiltzea atsegin dut. Txorimaloen aurrean ere pozik ibiltzen naiz korrika, nahiz eta jo egiten duten.

Barrakak eta txorimaloak ditut gustuko; eta matxinsaltoa izeneko barrakan pozik ibiltzen naiz. Bestalde, gustatuko litzaidake jaietan umeek dantzatzeko musika gehiago egotea.

ETABARRUAN...

SAN MIGELAK 2005	
Atarikoak	/3
Egitaraua	/4
Jose Mari Bengoa	/6
Musika Arantzazun	/9
Bertako arrazak	/10
Jana eta edana	/12
Musika, aukeran	/14
Eguna karreretan	/16
Trialsin ikuskizuna	/18
Maria Errasti	/20
Umeak	/21
Bertsoak	/22

ATARIKOAK



Goienkaria

Zuzendaria: Eneko Azkarate
Erredakzioa: Irati Agirreazaldegi
Publizitatea: Amaia Mundiñano
Diseinua: Golo Arana, Iñaki Iturbe
Maketazioa: Maitena Arana
Testuen zuzenketa: Sergio Azkarate

AURREKONTUA San Migel jaiek aurtan 126.000 euro inguruko aurrekontua dute. Ikuskizunak kontratatzen 44.000 euro gastatzen dira; eta beste horrenbeste herriko elkarten artean banatzen ditu Udalak. Gainontzekoa azpiegiturarako eta zerbitzuetarako erabiltzen da. Bestalde, aurtan Oñatin izango diren eko-gastronomia jardunaldiak antolatzeko 14.000 euro bideratu dituzte; beste 3.000 euro, berriz, artzainen topaketarako.

ALKATEARENAGURRA/ Andoni Gartzia



Herriko jaiak umore onean gozatu

Oñatiar estimatuok:

Ia-ia ohartu gabe legealdiaren zatirik handiena egin dugu, zuen konfiantza eta botoek ematen duten zilegitasunarekin esku artean hartu genuen legealdia. Jaietan zuek agurtzeko beta dudanez, nire esker ona berretsi nahi dizuet egitaraua egiten parte hartu duzuenoi; hori bezalaxe ditut gogoan aurtan utzi gaituztenak eta hainbat gorabehera tarteko gurekin egon ezin direnak ere.

Udaleko gobernu taldearen helburuetako bat, oñatiarren ongizatea hobetzea da, garapen ekonomiko lehiakor, dinamiko eta dibertsifikatuaren bidez, ondare historiko zein ekologikoarekiko errespetuan urbanismo jasangarria sustatuz, eta herri-

arren gizarte eta kultura beharrekin sentikor izanez. Ondo dakit denen gusturako euririk ez dela, pozik nengoke gehiengoaren gogoia beteta.

Hiri baten bizitza eraldatzen duena, bere aldatzeko borondatea eta ikuspegi estrategiko zein solidarioa da. Herritarrek hiriak behar duena zer den garbi ikustea da gakoa, eta hiritarrek nahi duten etorkizuneko eszenatokia identifikatzen jakitea.

"Ideia bat imajinatu, proiektatu eta egi bihurtzea ez da eginkizun erraza. Lortzen denean, egunero-egunero horretan lanean ari diren pertsonak aberastu eta moldatzen dutelako da".

Besterik gabe, jaso ezazue, herriko Jaiez harmonian eta umore onean gozatzeko nire gonbitea.

ZURICH AUTOK eskaintzen dizu:

- Aseguruaren titulartasuna 25 urtetik aurrera
- Lehenengo bi urteetan erabateko hondamena gertatuz gero, auto berriaren balioa
- 25 eta 35 urte arteko emakumea izatearren, %10eko deskontua
- "Soluzioak bidean" zerbitzu gida: zure aseguruak eskaintzen dizun abantaila eta zerbitzu gama zabala.
 - Laguntza juridiko eta legala bidaietan
 - Deskontuak tailerretan
 - Deskontuak jatetxeetan, hoteletan (NH, Sol Melia...) eta paradoretan
 - Deskontuak bidaietan (opor-paketeak, auto alokatuak, tren txartelak, tarifa bereziak charter hegaldietan, hegaldi erregularretan...)

...eta zure aseguruak?



ZURICH

M^a del Mar Urrutia Negueruela

Motxon kalea 5 behea
20560 OÑATI
Tel./Faxa: 943 78 30 09
Polts: 620 77 66 20

EGITARRAUA

JAIETAKO EGITARRAUA



HAURREN DANBORRADA, ZAPATUAN.

Egubakoitza, 23

22:30 BERTSO JAIALDIA, Zubikoa Kiroldegan, Lizaso, Agirre, Egaña, Kolina, Lujanbio eta Mendiluze bertsolariekin.

Zapatua, 24

Goizean zehar EUSKAL HERRIKO BERTAKO ARRAZEN ERAKUSKETA

10:00 Amateur mailako TXIRRINDULARI LASTERKETA, XVIII. Oñati Saria.

10:30 ARETO FUTBOLA. Mikel Deunaren XIII. Txapelketa (Gazte maila). Eskoriatza-GSI-Bilbo.

11:30 ARETO FUTBOLA. Mikel Deunaren XIII. Txapelketa (Gazte maila). Aloña Mendi-Galtzailea.

12:30 ARETO FUTBOLA. Mikel Deunaren XIII. Txapelketa (Gazte maila). Aloña Mendi-Irabazlea

16:00 XXII. Mikel Deunaren sariari dagozkion PILOTA partiduetako FINALERDIAK, Zubikoa frontoian.

16:30 ESKUBALOAIA. Mikel Deunaren XIII. Txapelketa (Senior maila). 3. eta 4. postuak.

18:00 ESKUBALOAIA. Mikel Deunaren XIII. Txapelketa (Senior maila). Finala.

18:00 HAURREN DANBORRADA, Udai Musika Bandak lagunduta.

Ondoren ERRALDOIAK ETA TXORIMALOAK, Txistulari Bandarekin.

20:00 MUSIKA JAIALDIA, Arantzazuko basilikan. Oreka TX, Erramun Martikorena, Daniel Aire, Ustaritzeko gaita-joleak Chjart D'Luna.

Domeka, 25

09:00 Txistulari Bandaren GOIZ ERESIA.

10:30 ESKUBALOAIA. Mikel Deunaren XXVIII. Txapelketa (Gazte maila). 3. eta 4. postuak.

11:00 MUSIKA BANDAREN kalejira.

11:00 46. Nazioarteko ARTZAIN TXAKURREN Trebetasun Lehiaketa, Santa Lutzia zelaian.

12:00 ESKUBALOAIA. Mikel Deunaren XXVIII. Txapelketa (Gazte maila). Finala.

13:00 Oñatiko MUSIKA BANDAREN KONTZERTUA, Foruen Enparantzan. Bernabe Sanchiz.....R.Domenech Pardo Ordizia.....E.Mocoroa Don Gil de Alcala.....Manuel Penella Bella ItaliaHans.....Kolditz.....(konponketak)

16:00 BOLA JOKO txapelketa San Martinen.

19:00-21:00 Dantza doinuak, Oñatiko MUSIKA BANDAREKIN.

Eguaztena, 28

Mikel Aozaratz Deunaren eguna

18:00 Erraldoi eta buruhandien KONPARTSEN KALEJIRA, jaiei hasierarako.

20:00 Txosna-gunean, txupinazoa eta TXANTXIKUAREN JAITSIERA.

20:00 LISKER taldearekin dantzaldia, Foruen Enparantzan.

23:00 DANBORRADA NAGUSIA herriko kaleetan zehar, Oñatiko Musika Bandak lagunduta. Amaiera Foru Enparantzan izango da, Danborradaren Martxarekin eta San Migelen ereserkiarekin. **Ondoren** Oñatiko preso eta errefuxiatuen aldeko MANIFESTAZIOA. **Gero** LISKER taldearekin, dantzaldia.

Eguena, 29

Mikel Deunaren eguna

09:00 Txistulari Bandaren GOIZ ERESIA.

10:00 Txopekua tiro zelaian, herri mailako PLATER TIROKETA.

11:00 Mikel Deunaren parrokiako MEZA NAGUSIA, Parrokiako abesbatzarekin.

12:00 MUSIKA BANDAREN kalejira.

12:00-14:00 HAUR PARKEA, Etxaluzen.

13:00 Oñatiko Musika Bandaren KONTZERTUA, Foruen Enparantzan. A San Miguel.....Refice Cortes de la frontera.....

Manuel Navarro Molle Operas favorites.....R.Cornello (konponketak)

My fair lady.....F.Loewe Les patineurs.....Waldteufel-Jaroc

16:00-20:00 HAUR PARKEA, Etxaluzen.

17:00 Herriko koadrilen arteko HERRI KIROLAK, txosna-gunean.

18:30 TRIALSIN ikuskizuna. Foruen enparantzan.

19:00 PATATA TORTILLA LEHIKETA txosna-gunean.

Ondoren KOADRILEN ARTEKO AFARIA.

20:00 TTR-XILIPURDI dixierekin KALEJIRA.

23:00 ERIC RIGLER & BAD HAGGIS taldearen KONTZERTUA.

AVENIDA
bideokluba
Euskadi etorbidea 7

ONENA
bideokluba
Bidebarrieta kalea 15

*Kutxazain automatikoa 24 orduz
Nobedadeak VHS eta DVD formatuetan*

Makina automatikoak: sandwich hotz eta beroak, freskagarriak, zukuak, snack eta arto-krispeta beroak. (abenidako dendan bakarrik)



*modu eroso eta errazean
...eta inoiz baino gertuago!*

Tel.: 943 78 09 65

OÑATI

GRUPO
BESAIDE
Club de Viajes

VIAJES ARABA



Ondo pasatu
jaizak!

Lazarraga 3 • OÑATI

Tel.: 943 71 62 16 • Faxa: 943 71 63 58

EGITARUA



SOKAMUTURRA, IRAILAREN 29AN ETA URRIAREN 3AN GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ.

Egubakoitza, 30

- 09:00 IRIARENA Oñatiko Txistulari Bandarekin.
- 09:30 SOKAMUTURRA Foru Enparantzan, Arno etxeko zezenekin.
- 11:00-14:00 MOTOR SHOW, Etxaluzen. Quad eta gasolinadun mini motoen erakustaldia.
- 13:00 NAVARRERIAS jota taldearen kontzertua, Foru Enparantzan.
- 16:30 IRIARENA Txistulari Bandarekin.
- 17:00 SOKAMUTURRA Foru Enparantzan.
- 17:00-20:00 HELIMODEL CAR SHOW, Etxaluzen. Irrati kontroladun auto, hegazkin eta helikopteroen erakustaldia.

- 20:00 PERFUSION taldearekin BATUKADA.
- 22:30 Txosna-gunean, KONTZERTUA: Sex Museum, Juke Box eta Oñatiko talde bat.
- 23:00 VERACRUZ taldearen KONTZERTUA.

Zapatua, 1

- Herri eguna**
- 09:00 Txistulari Bandaren GOIZ ERESIA.
 - 10:30 Herri mailako ARDI, AHARI ÉTA BILDOTS lehiaketa.
 - FRUTA, BARAZKI ETA GAZTA lehiaketa.
 - LORE ETA LANDARE erakusketa.
 - Herri mailako GANADU erakusketa.
 - ARTISAU erakusketa.
 - 11:00 TRIKITILARIAK herriko kaleetan.

- 11:00 Tolosako GAITA-JOLEAK kaleetan.
- 12:00 SAGARDO dastatzea Foru Enparantzan.
- 13:15 Lehiaketen SARI BANAKETA.
- 14:30 HERRI BAZKARIA, Zubikoa kiroldegian.
- 18:00 HERRI KIROL JAIALDIA Foru Enparantzan.
- 19:30 Txosnetan, herriko PRESO eta ERREFUXIATUEI OMENALDIA.
- Ondoren, manifestazioa.**
- 19:30 Parrokian F. ESNALEN SALBEA, Parrokiako abesbatzak eta Oñati Abesbatzak abestuta.
- 20:00 TRIKITRAKE taldearen kontzertua Foru Enparantzan.
- 22:30 XXII. Mikel Deunaren sariari dagozkion PILOTA partiduen FINALAK, Zubikoa pilotalekuan.
- 22:30 Txosnetan, ERROMERIA.
- 23:00 TRIKITRAKE taldearen kontzertua Foru Enparantzan.
- Ondoren EUSKAL DJ JAIALDIA.**

Domeka, 2

- Errosaixo Eguna**
- 09:00 Txistulari Bandaren GOIZ ERESIA.
 - 11:00 Parrokian MEZA NAGUSIA, Parrokiako abesbatzak abestuta.
 - 12:00 MUSIKA BANDAREN kalejira.
 - 13:00 Oñatiko MUSIKA BANDAREN KONTZERTUA Foru Enparantzan.
 - Lazos de lealtad.....Antonino Ibarondo
 - RojalestVentura Cartajena
 - Gigantes y cabezudosM.F. Caballero
 - CabaretJohn Kande


- 18:00 Umeendako BETIZU IZAR ARTEAN JAIALDIA, Foru Enparantzan.
- 18:00 ARKU TIROKETA erakustaldia, plazako pilotalekuan.
- 20:00 VARADERO orkestrarekin dantzaldia, Foru Enparantzan.
- 20:30 BALKOITIK BALKOIRA BERTSOTAN, Kale Zaharrear, Jesus Mari Irazu eta Maialen Lujanbio.
- 23:00 Pirotecnicia Caballerren SUZKO ERRUBERAK.
- 23:00 KONTZERTUA txosnetan: SORKUN.
- 23:30 VARADERO orkestrarekin dantzaldia, Foru Enparantzan.

Astlehena, 3

- Errosaixo bixamona**
- 09:00 IRIARENA Txistulari Bandarekin.
 - 09:30 SOKAMUTURRA ohiko kaleetan, Arno etxeko zezenekin.
 - 12:00 MUSIKA BANDAREN kalejira.
 - 12:00etan hasita INCANSABLES txaranga, egun guztian zehar.
 - 12:00 Erretiratuen elkartearen, DANTZA DOINUAK.
 - 12:00 Koadrilen arteko MOZORRO ERAKUSKETA.
 - 14:30 PAELLA JANA, txosna-gunean.
 - 16:30 IRIARENA, Txistulari Bandarekin.
 - 17:00 SOKAMUTURRA, ohiko kaleetan.
 - 17:00 KONTZERTUA, txosna-gunean: Oñatiko taldeak.
 - 20:00-21:00 EGAN taldearekin DANTZALDIA.
 - 23:00 EGAN taldearekin DANTZALDIA.



itziar optika



Kale barria 32 • Tel./Faxa: 943 71 82 88
OÑATI • itziaroptika@wanadoo.es

ELKARRIZKETA JOSE MARI BENGEOA ARTZAIN TXAKUR TXAPELKETAKO ANTOLATZAILEA

“Oraingo txapelketetan lehiakortasuna handiagoa da”

IRATI AGIRREAZALDEGI

Aurten beteko dira 50 urte Oñatin lehen aldiz Artzain Txakur Txapelketa egin zela. Jose Mari Bengoak azken 19 urteetan dihardu antolatzaile lanetan, eta harekin izan gara.

Nola hasi ziren orain dela 50 urte txapelketa hau antolatzen?

Orduko alkateak, Reyes Korkostegik, lagun baten bitartez jakin zuen Katalunian egiten zirela horrelako txapelketak; hango antolatzaileekin harremanetan jarri eta 1955ean egin zuten lehen txapelketa; hurrengo urtean nazioarteko izatera pasa zena.

Eta zu nola sartu zinen antolakuntzan?

Aurreko antolatzaileak pixkanaka uzten joan ziren, hainbat gorabehera izan

zirela medio. Beraz, herriko elkarteek hartu zuten antolatzeko ardura, eta gure elkartetik ni hasi nintzen orduan, gaur arte.

Hamaika gorabehera izango zen txapelketan. Zertan aldatu da?

Txapelketaren hasierako filosofia zen artzainak kalera ekarriz, kaletarrei erakustea txakurrak zenbaterainoko balioa zuen. Guk filosofia horrekin jarraitu dugu, baina egin beharreko ariketak aldatu egin dira, zaildu. Izan ere, artzainek entrenamendu asko egiten dituzte, eta txakurrak ikasita joaten dira lehiaketara. Txapelketaren kalitatea asko hobetu da.

Lehenengo ala oraingo txapelketa gustukoago?

Kalitateari dagokionez asko hobetu da txapelketa, baina nik lehenengo giroa nahiago nuen. Irabazteak baino gehiago, artzain artean ongi pasatzeak zuen garrantzia; orain, lehia-


kortasuna oso handia da eta horrek tentsioak sortzen ditu, eta epaimahaiaren aurka jotzen dute askotan.

Oñatiko txapelketak sona handia du. Zergatik?

Inguruotako lehen txapelketa izan zen, gero beste batzuk hasi ziren arren. Kanpoko txakurrak ekartzeko ere beti egin izan da ahalegin berezia. Bestalde, zelaia zoragarria da: erreka dauka erdian eta ardiak alde batean egoten dira eta artzaina eta epaimahaia bestean, eta horrek lanak zailtzen ditu, baina era berean, ikusgarriago egin.

50 urte igaro eta gero...

Ni hasi nintzenez talde polita geneukan antolakuntzarako; baina pixkanaka jendea uzten joan da. Badira urte batzuk kargarik handiena nik daramadala, laguntzaile batzuekin. Borondatez lan egiteko ez dago prest jendea; ni desiratzen nago lekukoa beste norbaiti pasatzeko.



Aurtengo parte-hartzaileak

Gipuzkoa, Bizkaia, Araba eta Nafarroaren artean elkarte bat dugu. Nona bere txapelketa egiten du eta gero, Euskal Herrikoa. Ondoren, Oñatin nazioarteko finala egiten da. Aurreko lehiaketetako txapeldunak etortzen dira. Haiez gain, Iparraldetik eta Kataluniatik txapelduna eta txapeldunordea. Biarnotik eta Mallorkatik ere aurten badatoz ordezkariak.

TXAKURRA

- RIKI
- ZIZA
- NOIZARTE
- BIZKOR
- LISTA
- ARGI
- TXIKI
- ALAI
- TIF
- NUCA
- CORK
- IGLU

ARTZAIA

Enrike Mendiguren
Jon Zuazo
Enrike Mendiguren
Jose Mari Jauregi
Ramon Larrañaga
Antonio Alustiza
Jean Abadie
Michele Atxeritogarai
Ilari Novillo
Jose M. Pleguezuelos
Miguel Aprover
Pierre Pommies

NINGOIA

Orozko (Bizkaia)
Nafarrate (Araba)
Orozko (Bizkaia)
Ilarduia (Araba)
Azkoitia (Gipuzkoa)
Areso (Nafarroa)
Meaine (Nafarroa Beherea)
Ioldi (Nafarroa Beherea)
Santpedor (Bartzelona)
La Canonja (Tarragona)
Felanitx (Mallorka)
Aramitx (Biarno)

BATYAK, S.A

- MEKANIZAZIOAK ETA KONPONKETAK ORO HAR
- TORNUAK ETA FRESATZEKO MAKINAK - CNC
- ARTEZTEKO MAKINAK

Zubillaga industrialdea 12
Tel.: 943 78 11 15
Faxa: 943 71 82 50
e.maila: batuak@batuak.com
OÑATI

Hizkuntzak denontzat

*haur, gazte eta
helduentzat*

*matrikula epea
zabalik*



ingeleza
frantsesa
alemana
portugesa
italiera

*Deskontu bereziak
haur eta helduentzat.*

Informa zaitez!

Tel.: 943 716000

 **CIM**
HIZKUNTZAK-IDIOMAS

Olakua 14 - 20560 Oñati
Tel.: 943 71 60 00 Faxa: 943 71 80 51
e-posta: oinati@cim-idiomas.com
www.cim-idiomas.com

bai & by
Lund



ilusioerako mila eta bost arraso



Jai zoriontsuak!

- LANA, S. Coop**
 Santxolopetegi, 24, P.K. 25
 20560 OÑATI (Gipuzkoa)
- <http://www.lana.coop>
 - e-maila: info@lana.coop
 - Tel.: 943 78 07 00
 - Faxa: 943 78 32 22



MUSIKA EMANALDIA ARANTZAZUN

Artzainak musikari eta kantari lanetan Arantzazuko basilikan


Oreka TX, Ustaritzeko Gaitariak, Chjart´di Luna, Daniel Aire eta Erramun Martikorenak jardungo dute

IRATI AGIRREAZALDEGI

Artzainen Mundu Mailako III. Topaketa izango da Arantzazun irailaren 21etik 24ra bitartean. Jardunaldi hauek amaitzeko musika jaialdia antolatu dute.

Jaialdi Polifoniko-Perkusionista izango da irailaren 24an, zapatuan, 20:30ean, Arantzazuko basilikan. Txalapartariak, gaitariak eta kantariak jardungo dute ikuskizun honetan.

Artzainen Topaketako azken ekitaldia izanik, parte hartzaileendako opari gisa antolatu dute. Bide batez, artzainek kultura arloan zeresanik ere badutela erakutsi nahi da kontzertu honekin. "Artzainen Topaketak amaitzeko inoiz bertso saiorik egin dugu; baina hizkuntza oztopo izaten da. Musikarekin, ez dago ezer ulertu beharrik", esan digu Miren Elgarrestak antolatzaileak.



Jendaurreko emanaldiak lagata izan arren, salbuespena egin eta Arantzazun abestuko ditu bere kantuak Erramun Martikorenak.

Oreka TX, Chjart´di Luna, Erramun Martikorenak, Daniel Aire eta Ustaritzeko gaitariak izango dira jaialdian eta ikuskizuna Iñaki Beristainek gidatuko du.

"Jaiadirako sarrera doanekoa da eta jendea animatu nahi dugu Arantzazura etortzeko; basilika beteta ikusi nahi genuke"

Oreka TX taldeko txalapartariak euskal kulturako antzinako instrumentuen adierazgarri jardungo dute. Ustaritzeko gaitariak, berriz, Eskozia eta Irlandako doinuak eskainiko

dituzte. Chjart´di Luna Korrikako taldea, berriz, oso aditua da polifonian eta bost kantarik abesti ozenak kantatuko dituzte, gitarra lagun dutela.

HIRU TALDE ETA BI KANTARI

Azken talde honetako kide bat artzaina da; baita jaialdian jardungo duten bi euskal kantariak ere. Erramun Martikorenak albo batera utziak zituen jendaurreko saioak, baina artzaina izanik eta Topaketan parte hartuko duenez, kantari jarduteko gonbitari ez dio ezezik esan. Daniel Aire Xalbador bertsolariaren semea da eta artzain lanean jarduteaz gain abestu ere egiten du. Familiatik dator kion kanturako zaletasuna eta gaitasuna erakutsiko ditu Arantzazun.

Topaketan egongo diren 150 partaideentzat ez ezik, musika gustuko duen edozeinentzat izango da emanaldia, eta sarrera doan da. "Jendea animatu nahi dugu jaialdira etortzeko. Basilika beteta ikusi nahi genuke", esan digu Miren Elgarrestak.

LIZARRALDE

KIROLAK

ARRASATE
Foruen Enparantza • San Andres auzoa
Tel.: 943 79 91 47

Oñati
Olakua 16
Tel.: 943 78 29 86

**G e
u z
t i z
d e
r**

Kalebarria 29 behea
Orbea Etxea, parke aldetik
Tel.: 943 78 01 46
20560 OÑATI
www.goiena.net/blogak/guztizeder

Aurpegian:

- Tratamendu azal berritzaile termikoa "a la naranja"
- Orbanak kentzeko tratamendua
- Azalaren bizitasunerako tratamendua

Gorputzean:

- Gorputz osoa azal berritzeko tratamendua ("Peeling de Pétalos de Flores")
- Gorputz osoan bildukinak "Mineral Kura Limo" lurrarekin
- Kiloak kentzeko bildukinak gorputz osoan
- Azala gogortzeko bildukina

Zure gorputzak merezi du!

Ez ahaztu orain dela unerik egokiena LASER bidezko depilazioa egiteko, elektrikoa eta baita solariuma erabiltzeko ere.

Ondo pasau jaixetan!

BERTAKO ARRAZEN JARDUNALDIAK

Euskal arrazako animalien erakusketa Unibertsitate parean

Euskal produktuak ikusi eta erosi ahal izango dira, 23 arrazatako animaliekin batera

IRATI AGIRREAZALDEGI

Oñatin egingo du Euskal Abereak elkarteak Euskal Herriko Arrazen Erakusketa. Irailaren 24an izango da, Unibertsitate pareko zelaian.

Euskal Abereak elkarteak biodibertsitatea bultzatzea eta euskal abereen arrazen biziraupena ditu helburu.

Erakusketan, guztira, 23 arrazatako animaliak izango dira ikusgai. Animalia horietariko batzuk Oñatikoak bertakoak dira: Juan Galdosen pirenaika arrazako behiak; Nestor Altelairen ardi latxa mutur beltzak; Arantxa Jauregiren ardi latxa mutur gorriak; eta Angel Zubiaren erbi-txakurra.

Animaliez gain, beste-lako euskal produktuak ere egongo dira erakusketan ikusteko zein erosteko: Zallako tipula morea; euskal txerriarekin egindako txorizoa, saltxitxoia, urdaiazpikoa...; Añanako gatza...



Terreña arrazako behia.



Ardi latxa Gorbeiaiko artzain txakurrarekin.



Enkarterrietako bilau arrazako txakurrak.



Euskal txerria.

Ikusgai egongo diren animalien arrazak

BEHIAK

Betizuak; Montxinak; Pirenaikak; Terreñiak.

AHUNTZAK

Azpi gorriak.

ARDIAK

Karrantzako aurpegi beltza; Karrantzako aurpegi gorria; Latxa mutur beltza; Latxa mutur gorria; Sasi ardia.

ASTOAK

Enkarterrietako astarra

ZALDIAK

Burgete; Euskal Herriko mendiko zaldia; Behor Nafarra; Pottoka.

TXERRIA

Euskal Txerria

TXAKURRAK

Gorbeiaiko artzain txakurra; Artzain txakur iletsua; Enkarterrietako bilaua; Erbi txakurra.

HEGAZTIAK

Euskal antzarra; Euskal oiloa (beltza, gorria, leposoila, zilarra eta marraduna).

Nork esan du estresa?

Zure gorputza zaintzearen plazera.

Estresatuta bizi bazara eta kontraktura arazoak eta tentsio muskularra baldin badituzu, zeren zain zaude arazoa konpontzeko? Gure aurpegi eta gorputz tratamenduak eta SPA zirkuitoak konbinatuz, erabateko erlaxazioa lortuko duzu. Zure zain gaude...

Kale Zaharra 42, behea. • Tel: 943 78 01 71

Inork ez zaitu hobeto zainduko...

Thalasso
EDER



ALZU

Ehiza, Arrantza eta Mendi artikuluak

Ehiza eta arrantzarako lizentziak tramitatzen ditugu



Arantzazu Kalea 2 • 20560 Oñati
Tel.: 943 78 30 67
Posta-e: iarrese@hotmail.com

ELKARRIZKETA PELLO URDANPILLETA ABELTZAINA

“Euskal txerria eta Tolosako babak babestu behar dira”

I.A.

Bidaniako abeltzain honek euskal txerriak hazten ditu, eta hestebeteak ekoiztu modu naturalean. *Slow food* mugimenduko partaidea da eta honen nondik norakoak azaldu ditu.

Zer da *Slow food* delako mugimendua?

Mugimendu geldo bat da janarien, animalien eta biodibertsitatearen munduan. Italian sortu zen mugimendua, janari azkarraren egiten duen enpresa bati aurre egiteko. Italian beti babestu dute kalitatezko janaria, ongi ekoiztua, naturari lotua... Mugimendua mundu mailara zabaldu da eta lortu nahi da jendeak baloratzea eta babestea herrialde bakoitzean dauzkan produktu bereziak.

Euskal Herrian zertan oinarritu beharko genuke?

Bi produktu daude *slow food* mugimendua Euskal Herrian babestu beharrezkotzat jo dituenak: Tolosako babarruna eta euskal txerria. Ni azken horrekin ari naiz lanean. Donostiako Euskal Gastronomia Kofradiak zuzentzen du hemen mugimendua.

Jarraitzaile asko ditu Euskal Herrian?

Orain dela bi urte sortu zen elkarte eta pixkanaka doa. Askok esaten dugu nahi dugula bertako produktua, kalitateduna,

“Herrialde bakoitzeko produktuak babestu nahi ditu ‘*Slow food*’ mugimendua”

naturari lotua, baina horrek prezioen garestitzea dakar. Hala ere, *slow food* mugimendua ez da irabaziak lortzeko asmoz egin. Bitxiak diren produktuak inguruan ezagutarazi nahi dira. Nire kasuan, euskal txerria. Zortzi urte dira arraza berreskuratzen hasi nintzel, eta ondoren haragia eraldatzen artisau eran, prozesu geldoaren bidez.

Sari bat jaso duzu berriki, ezta?

Italian bada *culatello* izeneko produktu bat. Horren inguruan partzuergo bat sortu da eta mugimendua bultzatzeko Urrezko Culatello saria ematen hasi ziren. Urtean jende garrantzitsuari eman ostean, aurten niri eman didate. Esan zidaten aurten nahi ziotela saria eman animaliak hazi eta produktua ekoizterainoko bide hori egiten zuten bati.



Euskal txerriaren haragiarekin hestebeteak egin eta saltzen ditu Pello Urdanpilletak.

GOIENKARIA

Eko gastronomia jardunaldiak

Oñatin egingo dira jardunaldiak irailaren 26an. Bertan *Slow food* elkarteek mugimendua berri emango dute; Nafarroako eta Iparraldeko adibideak ere azalduko dituzte gero; eta euskal txerrien esperientzia eta Balearretako kasu bat ezagutzeko aukera izango da. Gaiaren gaineko interesa azaldu duten sukaldari batzuekin ere mahai ingurua egingo dute.



Bidebarrieta • OÑATI
Tel.: 943 78 34 44



Ondo pasa ditzazuela
San Migel jaixak!

GASTRONOMIA

Jan eta edan egoki, bada jaietan nahiko aukera eta toki

Tortilla, marmitakoa eta paella jateko aukera

IRATI AGIRREAZALDEGI

Janik gabeko edanak kalte egiten duela dio esaerak; Oñatiko jaietan bapo jateko aukerarik ez da faltako: tortilla jana, herri bazkaria eta paella jana izango dira, besteak beste.

Aurten antolatu du estreinako aldiz txosna batzordeak patata tortilla lehiaketa. Txosna-gunean bertan izango da Mikel Deunaren egunean, 19:00etan.

Lehiaketan parte hartzeko egunean bertan eman beharko da izena. Txosna batzordeak ipiniko ditu oinarritzko osagaiak: arrautzak, patatak, olioia eta gatza. Gainontzekoak partaideek eraman beharko dituzte: zartaginak, butano gasa eta tortillarendako zein aurkezpen egokia egiteko gainontzeko osagaiak.

Epaimahaiak tortillarik onena aukeratu eta sariak banatu ostean, txosnetan tortilla jana egingo dute.

HERRI BAZKARIA

Zapatua, urriaren 1a, Herri Eguna izango da, eta egun horretarako herri bazkaria antolatu dute. Bazkaria Zubikoa kiroldegian izango da, 14:30ean. Egun horretarako gertatu duten menua honakoa da: marmitakoa, haragia eta tarta. Ostean, kafea, kopa eta purua ere hartu ahal izango dira. Bazkari horretan, Elkarri taldearen Oñatiko tailerrak eta Parrokiako Misio taldeak egingo dituzte zerbitzari lanak.

Herri egunean sagardo dastatzea egongo da goizean

Txosna-gunean estreinakoz egingo dute tortilla lehiaketa

Janak edana izaten du lagun gehienez, eta Herri Egunean edariren bat bada protagonista, hori sagardoa izaten da. Foru Enparantzan Gipuzkoako 22 sagardotegitako sagardoa dastatzeko aukera izango da; gehienak Astigarraga-koak dira.

PAELLA JANA

Iaz antolatu zuten lehen aldiz paella jana Laixan elkartekok, eta bazkariak izan zuen arrakasta ikusita, aurten ere errepikatzea erabaki dute.

Iazko jende kopurua errepikatzen bada, aurten ere 500 lagun inguru izango direla espero dute.

Laixanekok Teruelgo enpresa batek gertatutako paella banatuko dute, eta bazkaria txosna-gunean izanik, edaria bertan erosi ahal izango da.

Bazkaritarako txartelak bost euroren truke erosi ahal izango dira Laixan elkartearen bulegoan, eta jaietan barrena txosnetan eta Luis, Guria, Paco eta Arrano tabernetan ere egingo dira salgai.



Herri egunean marmitakoa eta haragia jango dute Zubikoa kiroldegira joaten direnek.



Laixan elkarreak 500 lagunendako paella jana antolatu du Errosaixo Bixamonerako.

Jai Zoriontsuak! '05



ULMA

ULMA Taldea, Koop. E.

Po Otadui 3 - Apdo. 13.
20560 OÑATI (Gipuzkoa)
Tel: 943 034900
Fax: 943 780917
Web: www.ulma.com
Email: grupoulma@ulma.es



San Migeleletan

giro onena geurean!

Aker

Antton

Bikoitz

Boga

Etxe-Aundi

Galicia

Goiena

Guria

Olakua

Ona

Ongi

Txopekua

Txurruka

Umerez

Urtiagain

Zotz



ONDO PASAU SAN MIGELETAN

MUSIKA ESKAINTZA

Musika aukera zabala eta norberak gustukoena aukera dezala

Erromeria taldeak, folk ukitukoak, rock estilokoak, musika latindarra zein txarangak entzungo dira jaietan

IRATI AGIRREAZALDEGI

Jai giroaren osagarri ukaezina da musika. Era askotako jendea ibiltzen da jaietan eta guztien gustuak asetzeko moduko doinuak entzuten dira. Plazan, txosnetan zein kalean izango da zer entzun.

Zapatuan, Arantzazun artzainen doinuak entzungo dira; domekan, berriz, Oñatiko Musika Bandak dantzarako piezak joko ditu plazan.

Jai giroan erabat murgilduko gaituztenak, ordea, bestelako abestiak izango dira. Rock, trikitixa, folk zein bestelako musika aukera egongo da.

LISKER

Eibarko talde hori bost lagunek osatzen dute. Bi gitarra, bateria, baxu eta teklaturarekin dantzarako doinuak egingo dituzte. Irailaren 28an Foruen Enparantzan jardungo dute. Lehen saioa 20:00etan izango da; danborradaren ostean bigarrena.

ERIC RIGLER & BAD HAGGIS

Ezaguna da Eric Rigler gaita jolea, hainbat film zein telebista saiotan musikari lanetan jardun duelako. Besteak beste, Braveheart eta Titanic filmetan. Abeslari ezagunekin ere egin

ditu kolaborazioak: Paul McCartney, Mike Oldfield, Barbara Streisand, Rod Stewart eta Phill Collinsekin, esaterako.

Oñatira Bad Haggis taldearekin etorriko da. Gaita doinuek ahots, gitarra, biolin, baxu eta perkusioarekin bat egingo dute. Milurteko berriko musika zelta izendapena ere jaso dute taldearen doinuek. Emaldia irailaren 29an izango da, 23:00etan, Foruen Enparantzan.

NAVARRERIAS

Iruñeko boskote horrek jota saioa eskainiko du irailaren 30ean, 13:00etan, Foruen Enparantzan. Jotak ez ezik herri-kantak zein abesti ezagunen batzuk ere entzun ahal izango dira.

PERFUSION

Tuteratik dator talde hori; mendetan kultura eta arraza askok bat egin duten lekutik. Batukada ikuskizuna eskainiko dute plazan irailaren 30ean, 20:00etan. Perkusio tresnekin, Rio de Janeiroko Inauteriak oinarri hartuta Brasilgo erritmoetara barneratuko dute jendea, dantzarako gogoia eraginez; edo hori da behintzat euren asmoa.

SEX MUSEUM

Txosnetan jardungo du Madrilgo rock taldeak Arrasateko Jukebox eta Oñatiko



Eric Riglerrek Bad Haggis taldearekin batera zelta doinuak joko ditu gaitaren musika oinarri hartuta.

beste talde batekin. Kontzertua 22:30ean hasiko da, hilaren 30ean. 14 urteko ibilbidea du musikan eta urte-

otan zortzi disko, hamar single eta beste hainbat kolaborazio egin ditu. *Fly By Night* da euren azken lana.

JUKEBOX

Arrasateko lau lagunek eta Soraluzeko beste batek osatzen dute taldea. Rock-and-

roll, punk-rock eta hardrock talde ezagunen kantutak jotzen hasi eta harrera ona jasota kantu propioak prestatu eta *We only wanna rock* diskoa kaleratu dute.

Kontzertuak Foruen Enparantzan eta txosnetan izango dira

Denetarikoa musika aukera egongo da: folketik hasi eta rockera


Oñatiko taldeek kontzertua eskainiko dute azken egunean

VERACRUZ

Hirukote horrek Latinoamerikako doinuak ekarriko ditu Oñatiko plazara irailaren 30ean, 23:00etan. Juana Ogayarren ahotsak, Jose Sanchezen gitarrak eta

ERROTA
Erremerteri plaza 6
Tel.: 943 78 30 59
OÑATI

MUSIKA ESKAINTZA



GOIENKARIA

Sorkunek *Duna* lan berriko abestiak eta eskainiko ditu txosnetan, baita lehengoak ere.



GOIENKARIA

Egan taldeko Xabier Saldias musikariak eta dantzariak izango ditu taula gainean lagun.

Alberto Martinen rekintoak bat egin eta, besteak beste, bolero erromantikoak entzuteko eta dantzatzeko aukera eskainiko dute.

TRIKI TA KE

Herriko musika eta popa uztartuz, doinu biziz alaituko du plazako erromeria urriaren 2an. Besteak beste, azken laneko doinuak joko dituzte eta kantu tradizionaleri, funky, rock eta reagge ukituak gehituko dizkiete.

Bost lagunek osatzen dute taldea: Anabel Arraiza, *Goenkale* telesailean *Sararen* papera jokatzeko zue-na, da ahots nagusia; Iker Dorronsorok soinu txikia joko du eta baita abestu ere; Joseba San Sebastianek

baxuarekin jardungo du; Igor Telletxeak perkusioarekin eta Ruben Caballero gitarra joko du.

VARADERO

Nafarroako Varadero orkestrak adin eta gustu guztietarako gertatutako askotariko errepertorioa ekarriko du Foruen Enparantzara urriaren 2an, 23:30etan. Bederatzi musikari gazte izango dira guztira taula gainean; horietatik bi kantariak, neska eta mutila. Dantzarako giroa ipintzea da euren helburua.

SORKUN

Kashbad taldean eta Fermin Muguruzarekin batera ibili ostean bakarkako bideari ekin zion Sorkunek. Roc-

ka, elektronika eta pop zipriltzinez bustiriko doinuak eskainiko ditu txosnetan Errosaixo Egunean, 23:00etan. Ordurako kalean izango da *Duna*, Sorku-

nen bigarren lana, eta bertako kantuak ere joko ditu.

EGAN

Aurten 35 urte bete dira Egan taldea sortu zenetik.

Xabier Saldias buru duen erromeria taldeak, ordea, izan du aldaketarik. Dantzari eta guzti izango dira taula gainean musikariak, eta eurekin batera baita

herriko umeak ere. Ohiko dantzarako piezez gain, egungo kantu modernoak ere eskainiko dituzte Errosaixo Bixamonean afal aurretik eta ostean.

Musika kalean

Erromeria giroko taldeak, rock gogorra egiten dutenak eta bestelako orkestrak plazan zein txosnetan egongo dira, baina herriko kaleak girotuko dituen talderik ere ez da faltako. Xilipurdi Dixie taldeak musikaren bidez jai giroa herriko kaleetara eta herritarrengana zabalduko du Mikel Deunaren Egunean, iluntzean. Lan berbera egingo dute, Herri Egunari berezkoa duen euskal kutsu handiagoa emanez, trikitilariak eta baita Tolosako gaita joleek ere. 11:00etan irten eta herriko kaleetan barrena ibiliko dira. Eta jaietan ezin da txaranga doinurik falta kalean. Azken egunean Incansables txarangakoak ibiliko dira kalez kale ofatiarrak nekatu bitartean.



Incansables txarangakoek 12:00etan hasiko dute kalejira.

Burdindegia

Donika

Industria Hornidurak

Goribar auzoa z/g
Tel.: 943 78 07 45
Faxa: 943 78 11 75
20560 OÑATI



AEROMODELISMO, MINIMOTO ETA QUAD IKUSKIZUNA

Egun bat karreretan: nor baino nor azkarrago Etxaluzen

Moto txiki eta quad-etan ibiltzeko eta hegazkin zein autoak irrati kontrol bidez gidatzeko aukera izango da

IRATI AGIRREAZALDEGI

Moto txikiak eta quad-ak goizez eta irrati bidez gidatutako auto eta hegazkinak arratsalde; horiek ikusteko aukera izango dute oñatiarrek Etxaluzen irailaren 30ean.

Egun bat lasterketan igaro zuten Marx anaiek film ezagun batean, eta oñatiarrek ere karreretan pasatu ahal izango dute eguna; lasterketak, ordea, ez dira zaldien artekoak izango.

Goizez Quad-etan eta gasolinadun moto txikietan ibiltzeko aukera izango dute oñatiarrek. Arratsalde, berriz, irrati kontrol bidez gidatutako autoak, hegazkinak eta helikopteroak ikusi ahal izango dira Etxaluzen.

MOTO TXIKIAK ETA QUAD-AK
Gasolinadun moto txikiak modan dauden honetan, edozein herritarrek izango du aukera Etxaluzera joan eta moto hauetako baten gai-



GOIENKARIA

Goizez gasolinadun moto txikietan ibiliko dira oñatiarrek.



GOIENKARIA

Irrati kontrol bidez helikopteroak gidatzeko aukera egongo da.

nean eserita zirkuituari bira emateko. Moto txikietan ez ezik lau gurpildun moto handiagoetan, quad-etan, ere probatu ahal izango dute gidatzeko duten abildadea.

Arratsaldean, berriz, motoei eta quad-ei autoek, hegazkinak eta helikopteroak hartuko diete lekua.

Erakustaldirako irrati bidez kontrolatutako gasolinazko auto, hegazkin eta helikopteroen maketak erabiliko dituzte; hori guztia 30 metro luze eta 14 metro zabal izango dituen zirkuitu puzgarri batean izango da ikusgai. Eta guztiaz arduratzeko eta bertaratzen direnei

funtzionamendua azaltzeko bost aditu egongo dira.

Etxaluzera gerturatzen den edozeinek gidatu ahal izango ditu autoak irrati kontrol bidez; eta zirkuituan gehienez 12 ibilgailu egongo dira. Lasterketek 30 minutu iraungo dute gutxi gorabehera, baina tar-

tean autoek geldialdia egingo dute. Atsedean tartean, adituek erakustaldia eskainiko dute, mendiko autoekin akrobaziak eta jauziak eginda.

Autoen ostean, aireko ibilgailuen txanda izango da; hegazkin eta helikopteroena, hain zuzen ere.

Edozein herritarrek gidatu ahal izango ditu moto txikiak eta quad-ak

Zirkuituan txandako irrati bidez kontrolatutako 12 auto egongo dira gehienez

Adituek manduen bitartez pilotu lanak egingo dituzte lurretik. Hegaldiak, ordea, ez dira batere arruntak izango kalitatezko akrobaziak egingo baitituzte: *looping*-ak, hegazkinen atzerantzko erorketak eta aireeratze bertikalak. Auto eta helikopteroen arteko pertsekuzioa ere ikusi ahal izango da.

Lasterketak eta ikuskizuna, biak batean.



Murrats

943533637


Podologia Zentroa



- Kiropodiak
- Azazkal inkarnatuak
- Oin diabetikoen ultzerak
- Garatxoak
- Miaketa biomekanikoak
- Neurriera egindako plantillak
- Oinetako onddoen aurkako tratamenduak
- Silikonazko protesiak

Bidebarrieta 20 • Oñati

Ordutegia: 09.00etatik 13.00etara / 15.30etik 20.00etara



Solarium horizontala aire egokituarekin

Beltzaran-kolore berria, UVA izpirik gabe
Sesio bakar batean beltzaran-kolore bikaina lortuko duzu zure azalerako kalterik gabe

- Aurpegiko eta gorputzeko tratamenduak
- Depilazioa argizari hotz eta beroaz
- Portzelanazko azazkalak
- Betileen permanentea
- Manikura eta pedikura SPA
- Makilajea
- Masajeak
- ...

dOr Estetika
Errementari 5
20560 Oñati
T. 943533647

koma,

www.komalingua.com

5

*koma-k familia eta lagun artean
zai zorientsuak ifaro ditzazuela opa dize!*

Hizkuntza zerbitzuak

Irakaskuntza

Itzulpenak

Interpreteak

- Gazteak eta helduak ■
- Enpresa trebakuntza ■
- Neurrira eginiko trebakuntza ■
- Ikastaro trinkoak ■
- Azterketa prestakuntza ■
- Talde murriztuak (gehienez 6) ■
- Jatorrizko irakasleak ■

en
fr

eu
es
de

Olakua, 7 behea
20560 Oñati
Tel. 943 71 82 08

Andia Mendiaren Kalea, 2 - 26D bulegoa
01010 Gasteiz
Tel. 945 17 00 57

TRIALSIN ERAKUSTALDIA

Txantxikuen pare bizikleta gainean saltoka

Trialsin ikuskizuna izango da irailaren 29an

IRATI AGIRREAZALDEGI

Txantxikua saltoka ibiltzen dela gauza jakina da; baina Oñatin bizikleta gainean jauziak egingo dituztenak beste batzuk dira.

Trialsin edo bike trial ikuskizuna izango da irailaren 29an Foruen Enparantzan, 18:30ean.

Ikuskizunean, arriskuak, abileziak eta emozioak bat egingo dute. Txirrindulariek bizikleta gainean jauzi ikusgarriak eta altuera handiko hegaldiak egingo dituzte, prezisioa eta indarra uztartuta.

OÑATIN ZALETASUNA

Herrian beti egon da trialsinerako zaletasuna. Txantxiku Pedalada taldearen baitan badago trialsineko saila, eta taldeko *Baltzak* eta Idoiak esan digute urte batzuetan trialsinak Oñatin sona handia izan zuela. "Oñatin proba garrantzitsuak jokatu izan dira eta trialsinean maila gorenean jarduten zutenak ere

izan dira herrian. Espainiako txapeldun izan da oñatiarren bat eta txapeldun ez izan arren lan asko eginda aurre samarrean ibili direnak ere badira. Momenturik gorenean hamar pilotu izatera iritsi zen. Orain epaile lanak egiten dituztenak noizbait trialsinean ibilitakoak dira", esan digute.

KIROL GOGORRA

Ikusgarritasuna da trialsina berezi egiten duena. "Begiratu hutsera badirudi edozeinek egin dezakeela, baina traba asko igaro behar dira eta ez da dirudien bezain erraza".

Kirol guztiak bezala sakrifkatua da trialsina,

**"Momenturik
gorenean
trialsineko
hamar pilotu
egon ziren"**



Danel Gereta eta Ander Romero trialsineko bizikletarekin ibiltzen dira.

MEKANIZATUETARAKO ZERBITZU OSOA

MEKALKI

S. Coop.

*Ondo ibili
San Migeletan !!*

Zubillaga industrialdea 13
Tel.: 943 78 19 11
Faxa: 943 78 29 90
e.maila: mekalki@mekalki.es
<http://www.mekalki.es>
OÑATI

TRIALSIN ERAKUSTALDIA



GOIENKARIA

Alberto Gomez eliteko pilotuak jauzi ikusgarriak egingo ditu oztopoen gainetik.

eta hasieran umeek nahitaez behar dute norbaiten laguntza, gurasoena gehienetan. Aldamenean izan behar du pilotuak jauziak nola egin esateko, bizikleta konpontzeko, txapelketetara eramateko...

Sakrifizio horrek, ordea, ematen ditu bere fruituak, eta batzuk maila gorenera iristen dira.

ELITEKO PILOTUAK

Oñatin dagoen zaletasuna ikusita, trialsin ikuskizuna ekarriko dute jaietan; ez nolanhikoa gainera.

Alberto Gomez eliteko pilotuak David Gartzia-rekin jardungo du bizikleta gainean Foruen Enparantzako ikuskizunean.

Gomez junior mailako munduko txapelduna izan da; bi aldiz txapeldunordea

Alberto Gomez eta David Gartzia pilotuek altuera jauziak egingo dituzte

eta hiru aldiz Espainiako txapelduna.

David Gartzia 18 urteko pilotu gaztea izango du lagun. Espainiako txapelduna izan zen junior mailan; eta baita munduko txapeldunordea ere, iaz.

Bi pilotuek altuera jauziak egingo dituzte, erremolkeak, bidoiak, kubak... erabilia.

Bestalde, ikusleak boluntario bezala irtenaraziko dituzte pilotuek enparantzara, eta euren gainetik egingo dituzte saltoak bizikletekin.

Bi oñatiar trialsinean



ANDER ROMERO
8 urte



DANEL GERETA
8 urte

Anaia trialsinean ibiltzen zen, eta hark utzi zuenean ekin zion Anderrek trialsinari. Baserrian ibiltzen da gehienetan eta trialsina "oso dibertigarria" dela esan digu. "Besteak jausiz gero barre egiten dut sarritan, baita ni jausten banaiz ere". Edozein tokitan ibiltzen da trialsineko bizikletarekin: "Lokatze-tan, harri artean... ibiltzen naiz", esan digu. Jaietan nagusiagoei begiratu eta gero haiek egindako jauziak bera ere egiten saiatuko omen da. Izan ere, txapelketetan ere ibiltzen da Ander, Gipuzkoakoan eta Euskal Herrikoan, besteak beste.

Orain dela gutxi hasi zen trialsinean Danel, bizikletan ibiltzea gustuko zuelako. "Aitarekin hasi nintzen, eta hark erakutsi dizkit trialsineko gorabeherak", esan digu. "Harri artean ibiltzea dut gustuko; bizikleta arruntarekin ezingo nituzke trialsinekoarekin egiten ditudan saltoak egin. Horretarako, baserrira joaten naiz askotan". Jaietako trialsin ikuskizunera joango da; nagusitan trialsinean jarraitzea gustatuko litzaioke eta adituengandik ikasteko aukera izango du; hala ere, aitortu digu gutxi entrenatzen dela, behar baino gutxiago agian.



ARREGI
Nekazalturismoa



2 egongela eta jangela



6 logela, denak bainuarekin



Paraje ederrean kokatua, leku egoki eta lasaia, atsedenerako behar duzun guztiarekin



Garagaliza auzoa 21 • Tel. 943 78 36 57 / 943 78 08 24

Ondo pasatu San Migelak!

ELKARRIZKETA

MARIA ERRASTI

BASERRITARRA

“Azokan, erosleekiko tratua gustatzen zait gehiena”

IRATI AGIRREAZALDEGI

Duruan baserriko Maria Errastik Herri Eguneko azoka egi-ten hasi zirenetik urtero parte hartu izan du bertan. Aurtengorako ere barazkiak gertatzen dihardu. Lan horretan aurkitu dugu, eta tarte bat egin du lanean, gurekin berba egiteko.

Noiztik hartzen duzu parte Herri Egunean?

1973an hasi eta gaur arte ez dut sekula kale egin. Orduan 1.000 pezeta-ko dieta ematen ziguten. Ondoren, kilometroak Oñatin egin ziren urtean, ordainsaria handiagoa izan zen: 7.000 pezeta; eta ordutik aurrera gora egin du. Hala ere, jende gutxik hartzen du parte; gehien izan garenean sei baserritar baino ez gara egon. Orain, hasieran ez bezala, gure produktuak saltzeko aukera dugu.

Zer ipintzen duzu ikusgai postuan?

Etxean ditugun gauzak; barazkiak. Iaz, esaterako, lagun batek Suitzatik eka-

rritako haziak landatu eta kalabaza handi bat eraman nuen azokara. Urtean barrena ortuan zerbait landatu edo jasotzen dudana bakoitzean Herri Egunearekin gogoratzen naiz, ordurako gertu izateko. Baserrian gauzak maleziaz eta behar den garaian egin ezean, hobe ez egitea.

Zergatik ez du jendeak azokara joan nahi?

Ez dakit zergatik, baina herrian gutxi animatzen gara. Ni ilusio handiarekin egoten naiz azokan. Baina bada herrian jendea postura etorri eta esan izan didana etxean barazki hobeak dituela; edo nik erakusgai jarritakoak ez direla gure baserrian hazitakoak; eta horrek min ematen du. Haiei esango nieke eurak joateko azokara.

Zer dauka berezia zuretzat Herri Egunean?

Gehien gustatzen zaidana azoka bera da; erosleekin tratua. Iaz kalabaza txiki guztiak erosi nahi zizkidala esan zidan emakume batek; diru asko eskatu nion, erosiko ez zituelakoan. Nire harridurarako denak eraman zituen.



Duruan baserriko ortuan hazitako barazkiak eramango ditu Mariak Herri egunean azokara.

Zertan aldatu da Herri Eguna?

Irudipena dut jendea animalia kontuetan ilusio

“Etxean ditugun barazkiekin ilusioz joaten naiz azokara”

handiagoarekin ibiltzen dela. Ortuko gauzetan, ordea, ez. Bestalde, landare postuek azoka jantzi dute.

Herri Eguneko lehia- ketan irabazi izan duzu saririk, ezta?

Bai, hirugarrena eta bigarrena. Lehenengo saria eskuratzea ezinezkoa da, gure aldean badelako Oñatin ortuko lanetan gogor jarduten duenik. Hala ere, saria eskuratuta

pozik. Beti izaten dut saria jasotzerakoan baserritar eta herritarrendako hitzik, eta denak barrez uzten ditut. Aurtengoak ere gertatzen dihardut.

Nola gonbidatuko zenituzke kanpotarrak?

Ez da gonbidapen beharrik. Oñati herri jatorra da, eta badakite beso zabalik hartuko ditugula. Azokara ez ezik giroaz gozatzeraz etor daitezela esango nieke.

Herri eta baserri giroa bat eginda kaleetan

Herri Egunean, barazki, fruitu, gazta zein ganadu azokaz gain, bestelako ekitaldiak ere ekarriko ditu baserri girotik kalera.

Kalean trikitixa zein gaita doinurik ez da faltako; eta azokatik buelta egin ostean egarritzen direnendako, nahiko sagardo egongo da Foru Enparantzan. Gipuzkoako 22 sagardotegitatik ekarriko dute edaria dastatzeko. Egundor horretan herri bazkaria sona handikoa izan ohi da; jende asko elkartuko da Zubikoan.

Tripa bete ostean, herri kirol jaialdia ikusteko parada izango da, 18:00etan, Foru Enparantzan; eguraldi txarra egingo balu, Zubikoan.

Harri jasotzen Perurerna aita-emeek eta Haimar Irigoienek jardungo dute; aizkoran, berriz, Nazabal eta Barberena nafarren eta Arrospide eta Mugertza gipuzkoarren arteko norgehiagoka izango da. Eguna amaitzeko, erromeriak izango dira Foru Enparantzan zein txosnetan.



LIZKER
ZERBITZU INFORMATIKOAK

Tel.: 943 78 08 90
e-posta: informatika@lizker.com

- Salmentak
- Instalazioa eta mantenua
- Konponketak
- Aholkularitza informatikoa enpresa eta partikularretan

Lizker
aholkulariak
asesores

Tel.: 943 71 80 52

- Aholkularitza fiskala
- Lan aholkularitza
- Kontabilitatea
- Zerga aitortpena

Ondo pasatu San Migeletan!

Errementari plaza 2-3 behea • Oñati

UMEAK

Txikiendako musika, jolasak eta kantuak

Umeendako ekintza ugari izango da jaietan

IRATI AGIRREAZALDEGI

Umeak ere, helduak bezala, jaietarako prest izaten dira beti. Jai usaina darien gauza guztietara gerturatzen dira, eta horrelakoak izan badira aurtengo jai egitarauan ere.

Danborrada, erraldoi eta buruhandiak, haur parkea, barrakak zein musika ikuskizuna izango dira aurtengo San Migeletan.

Jaien atarian, bihar, zapatua, haurren danborrada izango da, 18:00etan, Musika Bandak lagunduta. Guztira, 140 ume irtengo dira hiru konpainiatan banatuta; bi mutilenak eta neskenak besteak; haiez gainera, sukaldari jantzitako talde misto batek ere hartuko du parte; eta herriko elkarteak ordezkatuz 22 banderadun ere izango dira danborradan.

Santa Marinatik abiatuta Bakardadeko Amaren kalea, Kale Zaharra eta Aita Madina kalea igaroko dituzte; plazatik pasa eta Atzeko kalea, Patroek kalea, Euskadi etorbidea eta Etxaluzen barrera ibilita Kale Berritik berriz plazara irtetako dira umeak.

Zapatuko danborradan 140 ume hartuko dute parte hiru konpainiatan

Irailaren 26an eta 27an barraketako txartelak erdi prezioan salduko dituzte

Sei pieza joko dituzte. Horietatik bi Oñatik bere egiten dituenak: Antonino Ibarrondoren *De Udana a Zubillaga* eta *San Migel*.

ERRALDOI ETA TXORIMALOAK Danborradaren ostean, erraldoi eta txorimaloak irtengo dira Txistulari Banda lagun dutela.

Zapatukoa ez da umeek erraldoi eta txorimaloekin jaietan duten hitzordu bakarra. Izan ere, Mikel Aozaratzaren egunean, irailaren 28an, kalez kale ibiliko dira, 18:00etan hasita.

Mikel Deunaren egunean ere izango da umeendako ekitaldirik. Goizez eta arratsaldean haur parkea egongo da Etxaluzen. Umeek puzgarrietan jolas egiteko aukera izango dute.

Gainontzeko egunetarako, barrakak egongo dira euren dako. Barraketarako txartelak 1,20 euro balio dute, baina irailaren 26an eta 27an prezio erdian ibili ahal izango dira umeak.



Haur parkea Etxaluzen egongo da irailaren 29an; umeek puzgarrietan jolas egiteko aukera izango dute.

'Betizuak izar artean' ikuskizuna urriaren 2an

Betisuisek, Emeuk, Arratik eta Betizuk musika eta antzerkia uztartzen dituen ikuskizun jostagarria ekarriko dute urriaren 2an, 18:00etan, Foruen plazara. Hamar urte arteko txikitxoei zuzendutako emanaldia izango da eta euren abestirik arrakastatsuenak jotzeaz gain, unibertsolarien kantu ezagunenak abestuko dituzte. Betimu taldea osatzen dute Betisuisek, Emeuk eta Betizuk, eta abentura berrian Arrati dute lagun. Euren asmoa da musika galaxia osoan zabaltzea.

**Osi
kirolak**

Mendiko kale 10 OÑATI Tel.: 943 78 35 09

A R G I Z T A P E N A

efaña

- Instalazio elektrikoak orokorrean
- Lampara moderno eta errustikoen erakusketa zabala

Ondo pasau
San Migel
jaixetan

Zubibarri 2
Tel./Faxa: 943 71 64 28
OÑATI

BERTSO SAIOA

Sei bertsolari Zubikuan oñatiarrei bertso kantuan

Lizaso, Agirre, Egaña, Kolina, Lujanbio eta Mendiluze bertsolariak jardungo dute jaialdian

IRATI AGIRREAZALDEGI

Bertsoek beti izan ohi dute tartea, eta Oñatin ere jaietako programazioan egin diete lekua. Bi saio izango dira: gaur gaueko jaialdia eta balkoitik balkoirako saioa, hain zuzen.

Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia ate joka den honetan, bertsoak eta bertsolariak Oñatiko jaietan izango dute tokia.

Gaur, egubakoitza, irailak 23, bertso jaialdia izango da, 22:30ean, Zubikoa kiroldegian. Jon Zaldua gai-jartzailearen esanetara Sebastian Lizaso, Joxe Agirre, Andoni Egaña, Sustrai Kolina, Maialen Lujanbio eta Aitor Mendiluze bertsolariak jardungo dute.

Lizasok eta Agirrek izan ezik gainontzekoek urriaren 9an hasiko den Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusian hartuko dute parte. Egaña, aurreko txapelketako txapelduna, eta Lujanbio, txapeldunordea, Bilboko BECen egingo den finalerako zuzenean sailkatuta daude; beste biak, berriz, finalerdietan ekingo diote txapelketari: azaroaren 6an, Hendaian, Irazuk; eta azaroaren 13an, Kolinak, Gasteizen.



Aitor Mendiluzek aurrez ere kantatu izan du Oñatiko Zubikoa kiroldegian.

SAIO ARRUNTA.

Jon Zalduak jardungo du Oñatiko saioan gai-jartzaile lanetan eta hark esan digunez, "saio arrunta izango da, ohiko ariketekin. Ofizioka jarriko ditut bertsolariak, puntuari erantzunez bakarren bat; bakarkako

Euskal Herriko txapelduna eta txapeldunordea jaialdian izango dira bertsoan

gairen bat edo beste ere izango da seguru aski. Baina oro har ez dut asmorik bertsolariak inolako ariketa berezitan jartzeko".

Oñatin lehenengo aldia du langintza horretan, baina entzuna omen du herri bertso-zalea dela. "Jendea

saiora gerturatuko dela uste dut; zaletasunik behintzat ez da falta Oñatin, edo hala diote behintzat", esan digu Jon Zalduak.

Txapelketa gertu izanik, haren inguruko gairik ere ipiniko die bertsolariak, saltsa pixka bat jartzeko.

Balkoitik balkoira bertsoan

Badira zazpi bat urte, Laixan elkartearen ekimenez antzinako bertso-tarako molde berezi bat berreskuratu zutela: balkoitik balkoirako bertso saioa.


Aurten Jon Maiak eta Jesus Mari Irazuk jardungo dute bertsoan bakoitzak balkoi banatetik kantuan; elkarrekin parez pare. Saioa Errosaixo Egunean izango da, Kale Zaharrean, 20:30ean.

Taberna asko dago kale horretan, eta antolatzaileek esan digutenez, "jai giroan jende asko ibiltzen denez, bertsoak entzutera geratzen dira".


Bertsolariak, besteak beste, Laixaneko zozketaren zerbakiak ere esango dituzte bertsoan euren jardunean; jaietako kontuen aipamenak ere izango dira.



Jesus Mari Irazuk.



Diseinuak eta dotoretan gure euriarekin bat egiten dutenean, osatzen da...
Gari



Ehune

Apainketa

Tel: 943 77 11 48

Udazken koloretan...

ZELAIAT

ONATI

1970ean sortua



Sukalde eta bainuak

Santa Marina 3 • 943 71 62 81




Altzariak

Euskadi Etorbidea 3 • 943 78 36 99



Atariak, leihoak eta zoruak

Patrua kalea 5 • 943 78 04 04



Etxetresnak

Patrua kalea 10 • 943 78 04 04



Berezaio industrialdea • 943 78 20 08

Erreforma integralak
gure enpresako langileek eginak, obrak ahalik eta azkarren bukatzeko